



ARAUDIA 2011

7 ko FUTBOLA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XXX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Gasteizen, Betoñoko futbol zelaian, 2011ko maiatzaren 28 eta 29 eta ekainaren 4ean.

1. JOKO SISTEMA

Kategoria: neska infantilak, 1997 eta 1998 urteetan jaiok.

2. TALDEEN OSAERA

Gehienez 15 jokalaria izango dituzte taldeek, aktan jasotakoak, eta horietaz gain ordezkarri bat eta entrenatzailea ere izango dituzte. Bost jokalaria egon behar dira, gutxienez, partidari hasiera eman ahal izateko; halere geroago etortzen diren gainontzeko jokalariek jokatzeko aukera izango dute. Talderen bat 5 jokalaria baino gutxiagorekin geratzen denean partida bukatutzat joko da.

Taldeek jantzien kolorearen berri emango diote antolaketari izena ematerakoan, bi talde ez daitezen bat etorri partida egunean.

3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK.

35 minutuko bi alditan banaturik dago partida eta 10 minutuko atsedenaldia du. Partidan zehar ez dago aldaketa-mugarik. Epailea aurretik ohartaraziz gero, zelaitik

irten den jokalaria bat partidako beste edozein momentutan berriro itzuli daiteke zelaira, aldatutako jokalaria zelaira uzten duenean. Jokalaria zelaiaren erdigunetik sartuko edo irtengo dira. Atezainak beste edozein jokalariri utzi diezaioke bere postua, epailea aurretik jakinaren gain jarritz gero; atezainaren elastikoa jantziko du jokalaria horrek. Jokalaria batek txartel gorria jasoz gero, ezingo du jokatu partida amaitzeko geratzen den denboran; kanporatzea partidako azken hamar minutuetan gertatu ezean, horren ordez beste jokalaria bat sartuko da zelaigunera.

4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA.

Jokalaria jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaitik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalaria hori zelaira itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaitik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalaria jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalaria jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

5. JOKOZ KANPO.

Jokalaria bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gunen barruan egonda ateko murratik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko murraren artean aurkako taldeko bi jokalaria edo gehiago egon ezean.

6. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.

13 metroko murratik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiketa dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko



aukera eman ez taldeari. Aurkako jokalariek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalariak bere taldearen 13 metroko gune barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

7. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN.

Penalti-puntutik bost jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalaria txandakatuz. Bost jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegini eta besteak sartu arte.

8. BALOIA

4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituenak. Berotzeko baloia taldeak ekarri beharko dituzte.

9. ZELAIA

Belar artifizialezkoa izango da zelaia.

10. JOKO ARAU OSAGARRIAK.

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.



11. KIROL SARIAK.

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

12. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo behar da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuk bideratuko ditu.

13. AZKEN OHARRA.

Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoerentarako honako hauek izango dira kontutan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2011ko urtarrilaren 24ko Agindua, 2011ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2011ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, 2011eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.